BIZITEGI ERAIKINA — MORAZA 6

D MAILA



Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta 1923ko jasodura atzeraeman bat dituena (horren proiektuak, gainera, eraiki ez zen beste jasodura bat aurreikusten zuen). Harlandua eta silarrixka konbinatzen dituen fatxada, juntura emendatua duena. Zurezko begiratokia ezker alboko baoan. Jatorrizko proiektu komuna Urbieta 51 eta 53rekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemana (5. goi oina).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko eta silarrixkazko elementuak; begiratokia.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
      * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.